

## Eskabidea betetzeko jarraibideak

Eskabide hau aurkeztu ahalko duzu, soilik zure hirugarren seme-alaben edo hurrengoan kasuan. Eskabide bat aurkeztu behar duzu 3-7 urteko seme-alaba bakoitzeko.

### Nork aurkezten du eskabidea?

- **Interesduna:** Laguntza jaso nahi duen pertsona da, eskatzailea. Ama edo aita, harreragilea eta tutorea izan daitezke, seme-alabaren zaintza eta jagoletza esleituta dituen familia-unitateko kidea bada.
- **Ordezkarria:** baldin eta interesdunaren ordezkaria beste pertsona bat bada. Kasu honetan, joan 5. orrira eta bete I. eranskina - "Ordezkaritza-baimena".

### 1. Eskatzailearen datuak

**NAN/AIZ/Pasaporte:** Eskatzaileak nazionalitate espainiarra duenean, bere NANaren zenbakia idatziko du. Eskatzaileak nazionalitate espainiarra ez duenean, AIZ (atzerritarren identifikazio-zenbakia) edo pasaporte adierazi beharko da.

**AIT:** AIZ badauka eta, gainera, AIT agiria badauka (atzerritarren identifikazio-txartela), adierazi zenbakia.

### 2. Bankuko datuak

- Adierazitako kontu-zenbakia erabiliko da zuk otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuan araututako seme-alabaren laguntzekin lotuta dituzun espediente guztietarako. Edozein aldaketa eginez gero, espediente guztietan izango du eragina.
- **Zer da kontu-titulartasunaren agiria?** Erakundearen izena, banku-kontuaren zenbakia, titularraren izen-abizenak eta nortasun-zenbakia (NAN, AIZ edo pasaporte) jasotzen dituen banku-agiria.

### 3. Jakinarazpenetarako datuak

Identifikazio-ziurtagiri elektronikoa bat ez baduzu (adibidez, BakQ, Izenpe, NAN elektronikoa...), posta arrunta aukeratu dezakezu bidaltzen dizkizugun jakinarazpenak eskuratzeko komunikazio-bitarteko moduan.

**Oharra:** Bitarteko elektronikoen kasuan, kontuan hartu 10 eguneko epea dagoela jakinarazpena sartzeko. Epe hori igarotakoan ez bazara "Nire karpeta" sartu eta jakinarazpen hori zabaldu ez baduzu, baztertu egin duzula ulertuko dugu. Kasu horretan, jakinarazpena egintzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du.

### 4. Laguntza eskatu ez duen gurasoaren datuak

Familia-unitatearen parte den beste pertsona: ama/aita, harreragilea eta tutorea. Beste pertsona hori badago bete behar da soilik.

### 5. Laguntza eragin duen seme-alabaren datuak

Seme-alabaren desgaitasunaren edo mendetasunaren kasuan, markatu dagokion laukitxo eta adierazi ziurtagiriaren berrikuspen-data.

**Oharra:** 3-7 urtekoen eskabide hau bete eta seme-alabaren desgaitasuna edo mendetasuna adierazita, desgaitasunaren edo mendetasunaren ziozko laguntza eskatzen da; ez da beharrezkoa desgaitasunaren/mendetasunaren berriazko eskabidea (DS) aurkeztea.

## II. eranskina: Laguntza nork kobratuko duen/seme-alabak familia-unitatean nork zenbatuko dituen

Kasu hauetan beteko da:

- **Laguntza eragin duen seme-alabaren zaintza eta jagoletza partekatua esleitzen duen ebazpen judiziala dago:** Baimena emateko, eskatzailea izan dadin seme-alabaren ziozko laguntza jasotzen duena.
- **Laguntza eragin EZ duen seme-alabaren zaintza eta jagoletza partekatua esleitzen duen ebazpen judiziala dago:** Beste gurasoak (ama/aita, harreragilea, tutorea) baimentzeko, beren egungo familia-unitatean seme-alabak zenbatu ditzaten, 3-7 laguntza kobratzeari begira.

## III. eranskina: Zaintza eta jagoletza partekatuko seme-alabaren familia-errola kontsultatzeko baimena

Kasu honetan beteko da:

- **Zaintza eta jagoletza partekatua esleitzen duen ebazpen judiziala dago:** Laguntza eragin duen seme-alaba edo/eta familia-unitatea osatzen duten gainerako seme-alabak ez daude eskatzailearekin errolatuta. Baimen horrekin, egiaztatuko da seme-alaba/k beste gurasoarekin (aita/ama, tutorea, harreragilea) errolatuta dagoela/daudela.